



2018eko URRIAREN 30EKO BILKURAKO AKTA

Bilkura : Ohikoa

Eguna: 2018/10/30

Ordua: 19.00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bilduak:

Olatz Iriarte Argaya. Alkatea

Mikel Telleria Irastorza . Zinegotzia

Ane Garmendia Gorostidi.Zinegotzia

Jokin Garmendia Etxeberria.Zinegotzia

Luis Lopez Garcia Uceda .Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

GAI ZERRENDA

- 1.-2018-09-26 Bilkurako akta onartzea , hala balegokio .
- 2.-2019 urterako indarrean izango diren zergak eta tasaren azterketa egin eta dagokiona erabakitzea .
- 3.-2018/01 kreditu aldaketa espedientea onartzea .
- 4.-Bostaitzetako inguruan Altzagako udalak egin duenaren inguruan dagokiona erabakitzea .
- 5.-Hiri mobiliarioaren mantenimendua,seinaleak e.a. nola dauden ikusi eta dagokiona erabaki .
- 6.-Ikaztegiako eskolako zuzendariaren eskaera , bertsolaritza programaren laguntzaren inguruan dagokiona erabakitzea .
- 7.- Leader 2017 proiektuaren luzapena eskatzea onartzea.
- 8.-Errepide departamentuak luzatu duen idatzia , Baliarraingo N-1 errepidean sarreran egingo den aldaketaren inguruan dagokiona erabakitzea .
- 9.- Alkatearen ebazpenak:



- 2018/31 ebazpena .GAEL futbol torneoarentzeko pilotalekua erabiltzeko baimena. Berri ematea
 - 2018/32 ebazpena. Hainbat ordainketa . Berri ematea
 - 2018/33 ebazpena. Gau beltza ospatzeko argiteria itzaltzea. Berri ematea.
 - 2018/34 ebazpena. Zartagi guraso elkarteak balioanitzeko aretoa erabiltzeko baimena. Berri ematea
 - 2018/35 ebazpena Panelfisak balioanitzeko aretoa erabiltzeko baimena. Berri ematea
 - 2018/36 ebazpena. GAEL futbol torneoarentzeko pilotalekua erabiltzeko baimena. Berri ematea
 - 2018/37 ebazpena. M. L. M.- pilotalekua erabiltzeko baimena. Berri ematea
 - 2018/38 ebazpena. Hainbat ordainketa . Berri ematea
- 10.-Galderak eta eskaerak .

1.-2018-09-26 BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO .

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2018-09-26ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurri eta komentatu dira . Alkateak galdetzen zerbait zuzentzeko ikusten den. Mahaikide guztiak ados agertu dira eta dagoen bezala onartuta geratu da.

2.-2019 URTERAKO INDARREAN IZANGO DIREN ZERGAK ETA TASAREN AZTERKETA EGIN ETA DAGOKIONA ERABAKITZEA .

2019 urterako indarrean izango diren zerga eta tasen berri jasotzen duen txostena agertu da, bertan tipo, balio, hobari eta hobarien prozedura nola izango den jasotzen da.

Zergak, atalez atal aztertu dira, ondoren ikusten diren bezala:

IBILGAILUEN ZERGA .

HOBARIAK



11/1989 Arau Foralaren 5. artikulua eta martxoaren 19ko 4/2003 Foru arauak zerga honen inguruan arautzen duenaren arabera, zerga honetan, udalei eskumena ematen dien hobariak aplikatu ahal izateko.

Arauk onartzen dituen hobari kasuak hauek dira:

.-Kuotaren %75 arteko hobaria ibilgailuak erabiltzen duen konbustiblearen arabera.

.-Kuotaren %75 arteko hobaria, ibilgailuaren motorraren ezaugarriak direla eta beronek ingurunean duen eraginaren arabera. Kasu hauetan, motorra elektrikoa balitz, laguntza kuotaren %95 arte iritsi daiteke.

.-Kuotaren %100 arte, ibilgailu historikoa den kasuetan. Fabrikazio egunetik kontatuta 25 urteko antzintasuna duen ibilgailuetarako.

.-Famili ugarien kasuan, %50eko hobaria gehienez.

.-Ezgaitasuna agiria dutenak

KUOTAK

Ibilgailuaren potentzia eta mota	Gutxi. Kuota (1)	Gehien. Kuota(3)
a) Turismoak		
9 zaldi fiskaletik beherakoak	18,39	55,17
9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak	36,78	110,25
12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak	61,30	183,90
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak	85,82	257,46
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	110,34	331,02
20 zaldi fiskaletik gorakoak	134,86	404,58
b) Autobusak.		
21 plaza baino gutxiagokoak	83,30	249,90
21etik 50 plazara bitartekoak	118,64	355,92
50 plaza baino gehiagokoak	148,30	444,90
c) Kamioiak.		
1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	42,28	126,84
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	83,30	249,90
2.999tik 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	118,64	355,92
9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	148,30	444,90
d) Traktoreak.		
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	17,67	53,01
16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak	27,77	83,31



25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	83,30	249,90
-----------------------------------	-------	--------

e) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdiatoiak

1.000 kg baino gutxiagoko eta 750 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	17,67	53,01
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarri dutenak	27,77	83,31
2.999kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	83,30	249,90

f) Bestelako ibilgailuak

Zikomotoreak	4,51	13,53
125 cc-ra bitarteko motozikletak	4,51	13,53
125 cc-tik 250 cc-ra bitarteko motozikletak	7,72	23,16
250 cc-tik 500 cc-ra bitarteko motozikletak	15,45	46,35
500cc-tik 1.000 cc-ra bitarteko motozikletak	30,90	92,70
1.000 cc-tik gorako motozikletak	61,79	185,37

HOBARIAK ESKATZEKO EGUTEGIA :

- .-Urtarrilaren 7tik hasita eta 30 arteko epea izango da.
- .-Udalak, martxoaren amaierarako eskaeraren inguruko ebazpena emango du.
- .-Udalak apirileko Osoko Bilkuran trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga errolda onartuko du.
- .-Udalak, maiatzaren 1ean, zerga ordaintzeko borondatezko epeari hasera eman dio eta ekainaren amaieran amaituko da.

HOBARIAK ESKATZEKO PROZEDURA :

Ondorengo dokumentuak aurkeztu behar dira:

- .-Eskaera orria
- .-Ibilgailuaren fitxa kopia .

GAUR EGUNGO HOBARIAK:

- .-Ibilgailu historikoak , kuotaren %50a
- .-Ezinduen kasuetan, kuotaren %100a

ERABAKIA :



Bat.-Ibilgailuen kuota 2018rako prezioen indize kontsumoa igotzea. Eta 2019rako kuota 1,2864ean uztea.

Ibilgailu mota eta potentzia	Euroak
A) Turismoak:	
9 zaldi fiskal bitartekoak	23,66 €
9 - 11,99 zaldi fiskal bitartekoak	47,31 €
12 – 13,99 zaldi fiskal bitartekoak	99,91 €
14 – 15,99 zaldi fiskal bitartekoak	110,40 €
16 – 19,99 zaldi fiskal bitartekoak	141,94 €
20 zaldi fiskaletik gorakoak	173,48 €
B) Autobusak:	
21 plaza bitartekoak	107,16 €
21- 50 plaza bitartekoak	152,62 €
50 plazatik gorakoak	190,77 €
C) Kamioiak:	
1.000 kg. bitarteko karga erabilgarria	54,39 €
1.000 – 2.999 kg. bitarteko karga erabilgarria	107,16 €
2.999 – 9.999 kg. bitarteko karga erabilgarria	152,62 €
9.999 kg.-tik gorako karga erabilgarria	190,77 €
D) Traktoreak:	
16 zaldi fiskal bitartekoak	22,73 €
16 - 25 zaldi fiskal bitartekoak	35,72 €
25 zaldi fiskaletk gorakoak	107,16 €
E) Trakzio mekanikoko ibilgailuen atoi eta erdiatoiak:	
750 - 1.000 kg. bitarteko karga erabilgarria	22,73 €
1.000 - 2.999 kg. bitarteko karga erabilgarria	35,72 €
2.999 kg.tik gorako karga erababilgarria	107,16 €
F) Gainerako ibilgailuak:	
Ziklomotoreak	5,80 €
Motozikletak: 125 zentimetro kubiko bitartekoak	5,80 €
Motozikletak: 125-250 zent. kubiko bitartekoak	9,93 €
Motozikletak: 250-500 zent. kubiko bitartekoak	19,87 €



Motozikletak: 500-1.000 zent. kubiko bitartekoak	39,75 €
Motozikletak: 1.000 zent. kubikotik gorakoak	79,49 €

BI.-Hobariak lehen daudenak onartzea eta 2018 urtean ere berdina aplikatzea, legeak ezartzen duen termino guztiak betetzen direnean.
Hiru.- Kuotaren %75 arteko hobaria, ibilgailuaren motorraren ezaugarriak direla eta beronek ingurunean duen eraginaren arabera.

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

HOBARIAK :

- .-Kuotaren %90 arte familia ugarien kasuan
- .-Kuotaren %50 arte babestutako bizitzen kasuan
- .-Kuotaren %50 arte, energi berriztagarrien probetxamenduagatik, eguzki panelak, biomasa, edo termikoaren kasuetan.
- .-Kuotaren %50 arte, bizitza hutsa izan eta Jaurlearitzari uztea
- .-Kuotaren %50 gehiago aplikatu daitezke etxe bizitza hutsen kasuetan.

KUOTAK :

Landalurra . Balioaren %0,3 tik % 1,1 arte . Baliarraingo kasuan %0,7610

Hirilurra . Balioaren %0,4tik %4 arte . Baliarraingo kasuan %0,1860

HOBARIAK ESKATZEKO EGUTEGIA :

- .-Urtarrilaren 7tik hasita eta 30 arteko epea izango da.
- .-Udalak, martxoaren amaierarako eskaeraren inguruko ebazpena emango du.
- .-Udalak Foru Aldundiari jakinaraziko dio, behin betiko errolda egiteko.

HOBARIAK ESKATZEKO PROZEDURA :

Ondorengo dokumentuak aurkeztu behar dira :
.-Eskaera orria



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

.-Hobaria zuritzeko behar den dokumentazioa .

GAUR EGUNEKO HOBARIAK :

Famili ugarien kasuan ,kuotaren %50 a

Eguzki panelak izateagatik ,kuotaren %50 a

ERABAKIA

BAT.-Kontsumo prezio indizearen arabera tipoak igotzea eta 2019 urterako honela geratu dira :

LANDALURRA : 0,7823

HIRULURRA : 0,1902

Bi.-Hobariak 2018 berdinak izatea .

ERAIKUNTZA , INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA

HOBARIAK :

.-Kuotaren %95ekoa obraren interesa : soziala , kulturala , historikoa ...

.-Kuotaren %95ekoa autokontsumoari begira energi berriztagarriak ezartzen direnean

.-Kuotaren %50ekoa azpiegituretako inbertsio pribatuetan

.-Kuotaren %50ekoa babes ofizialeko bizitzak direnean

.-Kuotaren %50ekoa pertsona ezinduen irisgarritasun eta habitagarritasun kasuetan

TIPOA.

Gehienezkoa %5 a .

Baliarraingo kasuan %2,763 a ondorengo hobariekin :
Hobariak:

Lur ez urbanizagarrian:



- 1- Baserriaren berrikuntza, mantenimendu eta eraberritze lanetarako eksklusiboki nekazaritzako jarduera dutenak, tipoaren %2,25eko hobaria izango dute. Hau da, aurrekontuaren %0,25a ordainduko dute.
- 2- Nekazaritzako jarduera eksklusiboa ez dutenek, honela bereizten dira:
 - Azken 5 urteetan erroldatuak tipoaren %75eko hobaria, hau da, aurrekontuaren %0,625 ordainduko dute.
 - Azken 5 urteetan erroldatua ez egoteak, tipoaren %50eko hobaria, hau da, aurrekontuaren %1,25 ordainduko dute.
- 3- Etxe berrien eraikuntza
 - Azken 5 urteetan erroldatuta dagoenak, tipoan %62,50eko hobaria izango du, hau da, aurrekontuaren %0,93 ordainduko da.
 - Azken 5 urteetan erroldatua ez egoteak, tipoaren %25 eko hobaria, hau da, aurrekontuaren %1,87 ordainduko dute.

Hirilurrean:

- 1- Baserriaren berrikuntza, mantenimendu eta eraberritzeko lanetarako eksklusiboki nekazaritza jarduera dutenak tipoaren %1,25 eko hobaria izango dute eta aurrekontuaren %0,25 a ordainduko dute.
 - 2- Nekazaritzako jarduera eksklusiboa ez dutenak, honela bereizten dira:
 - Azken 5 urte erroldatuak tipoaren %75eko hobaria, hau da, aurrekontuaren %0,625 ordainduko dute.
 - Azken 5 urte erroldatua ez egoteak, %50eko hobaria, hau da, aurrekontuaren %1,25a ordainduko du.
- 2- Etxe berrien eraikuntza:
- Azken 5 urte erroldatuak tipoaren %50eko hobaria, hau da, aurrekontuaren %1,25a ordainduko dute.



- Azken 5 urteetan erroldatua ez egoteak, ez du hobaririk izango, aurrekontuaren %2,5a ordainduko dute.

HOBARIAK ESKATZEKO PROZEDURA :

Ondorengo dokumentuak aurkeztu behar dira :

- .-Eskaera orria
- .-Hobaria zuritzeko behar den dokumentazioa , baimena eskatzearekin batera .

Idazkariak dio onartuta dauden hobariak ez direla zuzenak .

ERABAKIA :

Obligaziozko zerga ez denez, orain arte eman zaion aplikazio berdina ematea .

TASAK

Zaborren bilketa

2018 urtean egin den ahalegina ikusi behar da :

- .-Errefuxa edukiontzia kendu egin zen , eta sailkapena ondo egitearekin , bilketa maiztasuna gutxitu da .
- .-ONDORIOA : lehen urtean , 9603,24 EURO ORDAINTZEN ZENA , ORAIN 6851,40 eurora MURRIZTEA . HAU DA , HILEAN BATAZ BESTE , 230 EURO MURRIZTEA .

2018. urteko zabor errezihoak 2014 urtean onartuak :

.-Etxeetakoa	77,1762 erreziho.....	4.784,54€
.- Ez etxeetakoa.....	272,31 1 erreziho.....	272,31€
.- Elkartea	181,21 1 erreziho	181,21€
Guztira			5.238,06€

Orain , udalaren gain geratzen den aldea asko murriztu da , eta 2018 urtean 1613,34 eurotakoa izan da .



ERABAKIA:

2018 urteko tasa berdinarekin jarraitzea.

Eta herritarren hondakinen sailkapenean hobetu dutela jakinaraztea .

7.-Hilerriko zerbitzua

10.urterako kontzesioa eta inhumazio zerbitzua.....153,00 euro/ bakoitzeko
Exhumazio zerbitzua153,00 euro/ bakoitzeko
Mantenimendu kontzeptua 100 euro.

Hilerriko zerbitzuaren kudeaketa kanpoko zerbitzuaz eskaintzen da eta, bere zerbitzuen kostuz gain, 10 urteko kontzesioaren tasa 100 euro / 10 urterako izatea.

ERABAKIA:

Orain arte bezala jarraitzea.

8.-Udal jabari publikoa okupatzeagatiko prezio publikoa:

Udal jabari publiko okupatzeagatiko prezio publikoa : % 1,5

ERABAKIA:

Dagoen bezala jarraitzea.

3.-2018/01 KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA ONARTZEA .

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:



Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.131.920.00.01 2018	BEHIN BEH. LANGIL. ORDAINK. ADMIN. OROK.	0,00	3.000,00	3.000,00
1 0000.210.163.00.01 2018	AZPIEGIT. ETA ONDAS. GAST. BIDE GARBIAK	2.000,00	700,00	2.700,00
1 0000.224.933.00.01 2018	UDAL ERAIKUNTZEN ASEG.POLIZAK. OSTATUA	500,00	200,00	700,00
1 0000.221.165.00.01 2018	ELEKTRIZITATEA: KALEKO ARGIKETA PUBLIK	2.900,00	500,00	3.400,00
1 0000.434.323.00.01 2018	BESTE ENTITATEEI: O.H.O. ESKOLA	300,00	50,00	350,00
1 0000.481.334.00.01 2018	LUKR.GABEKO ERAKUNDE: KULTUR JARDUER.	5.000,00	1.000,00	6.000,00
1 0000.422.942.00.01 2018	BESTE ENTITATEEI: TOLOSALDEA GARATZEN	2.800,00	300,00	3.100,00
1 0000.421.942.00.01 2018	MANKOMUNIT. ETA KONTS.: ENIRIO ARALAR	800,00	300,00	1.100,00
1 0000.601.452.00.03 2018	SANEAMENDUA ETA UR HORNIDURA	63.625,00	751,48	64.376,48
1 0000.601.933.00.02 2018	OSTATUKO INBERTSIOA	0,00	15.000,00	15.000,00
1 0000.601.454.00.06 2018	SAN JUANEKO BIDEA	0,00	13.010,00	13.010,00
1 0000.601.134.00.02 2018	IGOGAILUA	1.800,00	500,00	2.300,00
1 0000.601.342.00.01 2018	KIROL GUNE IREKIA	0,00	2.492,60	2.492,60
1 0000.642.151.00.01 2018	UDAL PLANEAMENDUA. IRISGARRITASUN PLANA	0,00	13.100,00	13.100,00
1 0000.215.920.00.01 2018	FOTOKOPIADORA ETA EKIPO INFORM. KONP.	300,00	70,00	370,00
GUZTIRA		80.025,00	50.974,08	130.999,08



Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2018	EMANENTEA EDO SOBERA	50.974,08
FINANTZAKETA GUZTIRA			50.974,08

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

- 1.-2018/01 kreditu aldaketari onarpena ematea .
- 2.- Udal Erregimenari buruzko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1/1985 Legeko 112.3 artikuluan, Udal Entitateen Aurrekontuari buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Araueko 15.1 artikuluan eta Udal Entitateen Aurrekonturen Araudia onartzen duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuko 19.1 artikuluan ezarritakoa betez, eta ondorengo arauen arabera jendeari ezagutzera ematea Aldizkari ofizialean argitaratzen denetik kontatuta hamabost egunetan .

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

2018. URTEKO AURREKONTUA

ARAUDI APLIKAGARRIA

- * 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- * 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- * Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2017(e)ko azaroaren 7(e)an, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1. ENTITATE
ZERRENDA:

1. BALIARRAIN



2. HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Entitate honen finantzaketa ahalmena/premia, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera, honako hau izatea espero da 2018. urtean:

Defizita: 50.974,08

Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doikuntzarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziaren bitartez egin da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

2018. urterako ezarritako helburua defizita zero izatea da.

Hori dela eta, toki entitate honek ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren 2018. urterako helburua.

Finantzen iraunkortasuna

2018-12-31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, honako hau izatea espero da, 2017. urteko sarrera arrunten aldean:

Zor bizia: %0,00

Kalkulua egiteko, 2017-12-31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiak kontuan hartuta, bai epe luzekoak, bai epe laburrekoak, abaletatik eratorritako arriskua barne.

Emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2018. urtean aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2018. urterako aurreikusitako amortizazioak.

Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2018. urterako ezarritako helburua zor bizia %75 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, toki entitate honek betetzen du finantza iraunkortasunaren 2018. urterako helburua.



Gastuaren araua

2018. urtean gastu konputagarria eta gastuaren muga honako hauek izan dira:

Gastu konputagarria:	273.990,08
Gastuaren muga:	210.254,68
Diferentzia:	63.735,40
DGrekin finantzatutako obligazioak:	50.974,08

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

	<u>2018</u>	<u>2017</u>
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	290.384,08	304.075,40
Zorraren interesak	0,00	0,13
SEC doikuntzak	0,00	0,00
Admin. publikoen ekarpen finalistekin finantzatutako gastua	16.394,00	98.748,43
Gastu konputagarria	273.990,08	205.326,84
Gastuaren hazkundearen muga:	%2,40	
Araudiaren aldaketan eragina:	0,00	
Gastuaren muga	210.254,68	

Hori dela eta, toki entitate honek ez du betetzen 2018. urterako gastuaren araua.

3. ONDORIOAK

Toki entitate honek ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2018. urterako ezarritako helburuak edota gastu araua. Likidazioan egoera hori berretsiko balitz, toki entitate hau behartuta legoke plan ekonomiko finantzarioa onartzera. Aipatutako planak ahalbideratu behar du urteko ekitaldian eta hurrengoan defizitaren helburua eta gastu araua betetzea, eta 2020an zor bizia sarrera arrunten %70 edo txikiagoa izatea. Plan hori Udalbatzari aurkeztu beharko zaio hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik kontaktzen hasita; bi hilabeteko epean onartu beharko da, gehiena jota, aurkezten denetik kontaktzen hasita; eta martxan jarri beharko da hiru hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik kontaktzen hasita.

Kontu-hartzailea



4.-BOSTAITZETAKO INGURUAN ALTZAGAKO UDALAK EGIN DUENAREN INGURUAN DAGOKIONA ERABAKITZEA .

Herritar batzuek azaldu dutenb kexa dela eta , herritarrek adierazi duten kexaren oinarrika kontutanhatruta , ondorengo idatzia egin da , Alzaga udalari luzatu ahal izateko .

ALTZAGA HERRIAK EGIN DITUEN HERRI BIDEEN ITXIERAK DIRELA ETA JASO DIREN KEXAK JAKINARAZTEA .

Alzagako udaleko ordezkariak udal honetara zuzendu ziren , Alzagako herri bideetan sarbidea denentzako irekia izan ordez , piboteak jarri behar zituztela eta eskubidea zuenari piboteak irekitzeko giltza emango zitzaiea adieraziaz .

Alzagako udalak luzatu zuen proposamen honen aurrean Baliarraingo udalak ez zuen ezer adierazi ondorengo arrazoiengatik :

Udal bakoitzak bere autonomía du , bere bideekin egokiena ikusten duena erabakitzeko , beti ere erabakiaren ondorioak bere gain hartzen baditu .

Orain , Alzagako bidea itxia aurkitzen da eta Baliarraingo udalean , kexa bat jaso da eta hori irtenbidea emate ondorioetarako Osoko Bilkurak idatzia bidaltzea erabaki du .

Horregatik , Baliarraingo udalean , ahoz adierazi den kexa , herritar batek aisisaldirako erabilera egiteko , Alzagako udalera zuzentzea.

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

Idatzia Alzaga udalera zuzentzea.

5.-HIRI MOBILIARIOAREN MANTENIMENDUA,SEINALEAK E.A. NOLA DAUDEN IKUSI ETA DAGOKIONA ERABAKI .



Udalerrian zehar hainbat hiri mobiliario daude eta beraien mantenimendu lanak egin beharrenda daudela ikusten da . San Juan eremuan dauden eserlekuak , joku ,argi farolak , hiriguneko eserlekuak , jolaslekua seinaleak e.a. eraberritu beharrenda daudela ikusten da . Guztia aztertu ahal ziateko , zerrendatzea komeni da lehendabizi , eta ondoren , guztiaren balorazioa egin beharko da.

Mahaikideen aldetik , elkarrekin mobiliario guztia ikusi eta zerrendatzeko geratu dira, ondoren aurrekontua egiteko .

6.-IKAZTEGIETAKO ESKOLAKO ZUZENDARIAREN ESKAERA, , BERTSOLARITZA PROGRAMAREN LAGUNTZAREN INGURUAN DAGOKIONA ERABAKITZEA .

Ikaztegietakoko eskolak , Gipuzkoako bertsozale elkartearen bidez , “ Gu ere bertsoan proiektua” gauzatzen ari direla 2018-2019 ikasturtean ere . Honen aurrekontua 1267,72 eurotako da , eta aurrekontu osoaren %40 eko faktura igorri dute , dagokion diru laguntza eskatzeko .

Ikastaro honetaz baliatuko diren ikasleak 4. 5. eta 6 mailako ikasleak dira eta ikastaro hau balioa handiakoa bezala ikusten da , emaitza onak dituelako .

2017-18 ikasturterako 100 eurotako laguntza ematea erabaki zen eta aurten ere 100 eurotako laguntza ematea proposatu da .

Beraz , ERABAKI DA :

2018-19 ikasturterako , bertsozalaritza ikastaroaren diru laguntza 100 eurotako laguntza onartzea.

7.- LEADER 2017 PROIEKTUAREN LUZAPENA ESKATZEA ONARTZEA.

Ondoren aipatzen den luzapena egitea proposatu da eta alkateak honako idatzia onartzea proposatu du :

Idazki honen bidez, nik, OLATZ IRIARTE ARGAYA , N.A.N. 72466896Z eta IFK zkiaP2009700B duen BALIARRAINGO UDALA enpresa/entitatearen ordezkari moduan, zera eskatzen dut:



BALIARRAINGO LANDALUR EREMUAN HAINBAT BASERRIEN SANEAMENDU ETA UR HORNIDURA proiektua burutzeko luzapen bat ematea (proiektuaren erreferentzia: (Exp-36-2017-00224) 2019eko maiatzaren 30arte. Izan ere, proiektu honi 2018eko martxoaren 22ean landaren eta Itsasertzearen Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariak emandako ebazpenean oinarrituaz eman zaio dirulaguntza bat. Eskaera hau egiten da proiektua ezin izango delako guztiz burutu horretarako ezarritako epearen barruan, hurrengokoak direla eta:

PROIEKTU BESTE ERAKUNDE BATEK BURUTU BEHAR ZUEN PROIEKTUAREN ONDORENGOA IZAN DA ETA BERANDUTU EGIN DENEZ , ETA DAGOKION PROZEDURA JARRAITU BEHAR DENEZ , OBRAREN AMAIERA LUZATU EGINGO DA.

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

Luzapen eskaera ontzat ematea .

8.-ERREPIDE DEPARTAMENTUAK LUZATU DUEN IDATZIA , BALIARRAINGO N-1 ERREPIDEAN SARRERAN EGINGO DEN ALDAKETAREN INGURUAN DAGOKIONA ERABAKITZEA .

Aldundiako errepide zuzendariak , idatzi baten bidez , jakinarazi du , GI-2131 eta GI-3851 Baliarraianera doan errepidea sartzeko puntuan aldaketa bat egin nahi dutela . gaur egun dagoen erraketa deuseztatzea eta ezkerretarako birakl errepidetik bertatik egin ahal izatea , ez dutela itxarote erreirik egitea beharrezkoa ikusten ..

Egoera honen aurrean , zuzendariarekin bilera bat egitea komeni dela ikusten da , bidegorria birritan gurutzatzen delako erraketa kentzea Baliarraingo herritarentzako kaltea iza daitekeela .
Errepide departamentuko zuzendariari bilera eskatzea erabaki da .

9.- ALKATEAREN EBAZPENAK:

Alkateak eman dituen ebazpena dira :



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

- 2018/31 ebazpena .gael futbol torneoarentzeko pilotalekua erabiltzeko baimena. berri ematea
- 2018/32 ebazpena. hainbat ordainketa . berri ematea

- 2018/34 ebazpena. zartagi guraso elkarteak balioanitzeko aretoa erabiltzeko baimena. berri ematea
- 2018/35 ebazpena Panelfisak balioanitzeko aretoa erabiltzeko baimena. berri ematea

- 2018/36 ebazpena. Gael futbol torneoarentzako pilotalekua erabiltzeko baimena. berri ematea
- 2018/37 ebazpena. m. l. m.- pilotalekua erabiltzeko baimena. berri ematea
- 2018/38 ebazpena. hainbat ordainketa . berri ematea

Mahaikideek , alkatearen ebazpenak ontzat eman dituzte .

10.-GALDERAK ETA ESKAERAK .

Galdera eta eskaerarik ez da izan .

Eta besterik ezean bilera amaitutzat eman zuen alkateak , 21:10etan .

Alkateak

Idazkariak